

BEGO ALBAZAN
ITZAL ITZELAK

5-10 urteko neska-mutilentzat

TITIRITESA

IPUINA ITZAL TXINATARREN MAGIAZ





BEGO Alabazan-ek

AURKEZTEN DU

ITZAL ITZELAK

Senide Osoarentzako Ipuin-Saioak Itzal Txinatarren Magiaz

ITZAL ITZELAK izenburupean **Bego Alabazan** ipuin-kontalariak biltzen ditu aspaldiko **Itzal Txinatarren Teknikaz** bideratzen dituen ipuin-saioak.

Hasierako garaietatik itzalak fantasia ziztatu izan du agian bere izaera iheskor, ikusgarri baina ukiezinagaitik. Argizatutako antzerkitxoak eta iluntasunak sortzen duen barnerantz biltzeko giro bereziak murgiltzen gaitu itzalen eta ipuinen mundu magikoan eta horrela, ia konturatu gabe, gure irudimena abiatzen da.

Gaur egun hiru muntaia taularatzen ditu:

- **“Hansel y Grettel”** (2012) - Grimm anaien *Haurren eta Etxekoen Ipuinak* liburua lehengo argitalpenaren 200. urteurrena ospatzeko sortua.
- **“Johnny Cold Feet”** (2014) - Irlandako ipuin herrikoi baten moldaketa.
- **“Titiritesa”** (2015) - OQO argitaletxearen izenburu bereko liburuan arnasa hartzen duena (QUINTIÁ, Xerardo, A.C. QUARELLO, Maurizio, Pontevedra 2007) eta emakumeon arteko homosexualitateari buruzko istorio ausarta kontatzen duena.

Tankera txikiko ikuskizunak, antzerki eta ipuin-saioen artekoak, ezin hobek liburutegietan, kultu-etxeetan edota antzokietan taularatzeko.

“Itzala magia eta ametsen parekoa da. Beren forma iheskor eta hain aldakorrek iruditu eta asmatzera gonbidatzen gaituzte, fantasiarako etengabeko adorea. Honegatik itzalak fantasiaz bete-beteriko istorioak kontatzeko oso aproposak dira, ikusten utzi gabe eta erdi-esanda adierazten dutelako eta errealitatea eraldatu eta aparteko ezaugarriak margozten laguntzen dutelako.”

“TITIRITESA”

“Titiritesa” ipuin herrikoiairen itxurako ipuin ausarta da emakumeen arteko homosexualidadeaz hitz egiten diguna. Ipuin ausart honek emakumeen arteko homosexualitateari buruz hitz egiten digu umorez, naturaltasunez eta goxotasunaz. Titiritesan aurreiritzirik gabeko maitasuna azaltzen zaigu eta sentsibiltate handiaz adierazten zaie txikienei gaia hau, beren afektibitate-heziketan lagunduz.

Bego Alabazan kontalariak saio berezi honetan ipuin honen bere bertsioa elkarbanatuko du: izen hain berezi hau duen printzesaren maitasun istorioa kontatuko digu naturaltasunez, umorez, musikaz eta itzalen kolorez ere, maitasuna bezala, itzalak ere kolore desberdinetakoak izan ahal direlako.

Senide osoari zuzendutako saioa.



PROMOZIORAKO BIDEOA

<https://vimeo.com/122890784>

SAIOAREN IBILBIDEA

Hegoak Elkartearentzat sortua eta 2015.eko Zinegoak Jaialdian estreinatua. Geroztik Zinegoak jaialdia honen Hedapenetan taularatua izan da ikuslegoaren harrera ezin hobearekin.



FITXA ARTISTIKOA

MOLDAKETA, MUNTAIA ETA NARRAZIOA Bego Alabazan

LAGUNTZA TEKNIKOA Pedro Ruiz (Alabazan)

NORI ZUZENDUA senide osorako ipuin saioa 5 urte baino gehiagoko txikientzat

HIZKUNTZA gazteleraz zein euskeraz

IRAUPENA 45 minutu

FITXA TEKNIKOA

MUNTAIA/DESMUNTAIA ordu eta erdi / ordu betea.

TOKIAZ

- Toki lasaia eta ilundu daitekeena, ezinbestekoa baita.
- Entzuleentzako aulkiak.
- Entzule-giroa bermatzen duen arduraduna izan behar da saioa bitartean, hau ez baita narratzailearen ardura.

ESZENATOKIA

- 2x2,50mko espazioa.
- bi mahai antzerkitxoa jartzeko.

SOINUA ETA ARGIAK

- 220v.ko korrante-puntua. Argindarraren gutxienekoa 2.000 w.koa.

Soinu-ekipoa, argiak eta teknikaria Alabazanen esku.

HONEZ GAIN...

...**Itzal Itzelen** saioekin lotuta, **“Itzalekin jolasten eta kontatzen”** sormen-gunea bideratzeko aukera eskaintzen dizuegu. Bertaratzen diren neska-mutilekin batera siluetak sortuko ditugu, argiaren aurrean beraiekin jolastuko gara eta, gure ahots eta musikaz lagunduta, sortzen zaizkigun istorioak elkarrekin kontatuko ditugu.

Informazio gehiagorako, badakizu non gaituzun.





NARRATZAILEAREN AURKEZPENA

Bego Alabazanek, (Begoña Gómez Abrisketa), 1996tik hona Ahozko Kontalaritzan dihardu txiki eta nagusiei ipuinak kontatzen, euskaraz eta gazteleraz ere. Berarentzat ipuinak kontatzearen oinarrizko helburua dibertitzea da; eszenatokira ateratzen denean entzuleekin jolasteko gogoz egiten du, txikiak zein handiak direla. Beti hitzez, begiradaz eta keinuez lagunduta, batzuetan arnasa eman dioten liburuak eramaten ditu edota berak egiten dituen irudi, txotxongilo eta eskulanak ere.

Azken bolada honetan Itzal Txinatarren xarmaz gozatzen du, honegatik dagoeneko hiru ikuskizun dauzka martxan.

Urtero 80 bat antzezkizun gauzatzen ditu batez ere Euskal Herriko liburutegi, kultu etxe, antzokietan... eta baita bere baitan sartu diren istorioak entzuteko prest dauden edozein tokitan.

Gaur egun **Alabazan Aho-narrazioa Kooperatibaren** erdia da Pedro Ruizekin batera.

2006tik hona Barakaldoko Udalarekin batera aurrera ateratzen dute **HitzBATU** egitaraua, Barakaldo eta Gurutzetako eskoletako Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutilekin ipuinak sortzen.

Honez gain, 2012tik gaur egun arte Bilboko Udalarekin batera **Istorio Biziak /Cuentos EncadenaDOS** izeneko ahozkotasanari buruzko hamabostaldia programatzen dute, hiribildu honen 2. barrutian.

Galtzagorri Elkartearen parte da 2011tik hona.

AEDAko (Asociación de Profesionales de la Narración Oral en España) kidea da ere 2012tik aurrera.

HARREMANETAN JARTZEKO

Bego Alabazan Tif. 637302007 bego@alabazan.net www.alabazan.net



www.alabazan.net